



MADDIREN AMETSAK

Iñaki Zubeldia

Ainara Azpiazu, *Axpiren* marrazkiak

Desclée De Brouwer

AURKIBIDEA

Maddi oporretan	9
Kimetz neska bihurria	11
Xirripin fantasmatxoa	17
Olentzero miresgarria	23
Amona mantangorria	33
Botila mezularia	35
Nagadu	39
Asto xelebrea	47
Astobusak	48
Marko	53
Alazneren auzoa	59
Kristina-enea	63
Axelko, Beleko eta Otsoko	67
Naiara	75
Ipurtargiak eta bere ohiturak	79
Eguraldiaren makina	83
Titanic-en hondoratzea	91
Txita bihurria	96
Ikaro eta Dedalo	101
Gulunbe	109



hondartzan



aitona
portuan



MADDI OPORRETAN

Maddi hiri handi batean bizi da, baina oporrak iristen direnean kostatuta aldeko herri txiki batera joaten da.

Herri txiki hau itsas bazterrean dago eta oso polita da. Eta lasaia. Hirian semaforoak daude, autobusak, taxiak eta jende gehiegi ibiltzen da kalean presaka. Herri txiki honetan, berriz, jende dexente dabil, baina oinez eta lasai, hondartza bidean. Kalleak estuak dira eta batzuk aldapan daude. Moilan arrantzaleen itsasontziak etengabe aritzen dira lanean, arrain-kaxak hustutzen, jela ganbaroteetara sartzen eta sareak konpontzen... Arrain-usaina nonahi somatzen da eta jateko gogoia esnarazten du.

Hondartza ez da oso handia, baina bai lasaia eta atsegina, hondar mehe eta bigunez estalia. Hantxe pasatzen ditu Maddik udako momenturik goxoenak. Beno, han eta gauetan lotarakoan, aitonak ipuinak kontatzen dizkionean. Gauero-gauero ipuin bat kontatzen dio aitonak eta Maddik ere asmatzen dizkio tartetan ipuin laburrak aitonari.



Hemen ez dugu Maddiren oporraldi osoa kontatuko, ez bailitzateke liburu osoan kabituko. Bakar-bakarrik Maddiren lotarako une goxoak azalduko ditugu, eta ikusiko duzue zeinen politak diren aitonaren ipuinak. Eta baita Maddik aitonari kontatzen dizkionak ere. Laburrak, baina politak dira hauek ere.

